

ERALDATZE DIGITALA ENPRESAN

Donostia - 2016ko Azaroaren 10a - Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta Miramon Enpresa Digitalak jardunaldi dibulgatzaile bat antolatu dute **"Enpresaren Digitalizaio. Zure negozio-eredua eraldatzen"** izenburupean. Jardunaldia gaur, osteguna, burutu da Donostiako Miramongo Parke Teknologikoko Auditorioan eta 200 pertsona baino gehiago izan dira bertan.

Jardunaldia "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamalagarren edizioan barneratzen da eta enpresei zuzendua egon da, honako helburuekin: enpresek ekonomia digitalaren joerak ezagutu ditzatela, teknologia digitalean oinarritutako negozio bat sortu ditzatela euren gaitasunak garatuz eta negozio digital modelu berrien diseinua eta ezarpena ezagutu ditzatela.

Jardunaldian, **Antonio Velascok**, Telefónioka-ko Eraldaketa Digitaleko Kudeatzaileak, **Silvia Lealek**, IE Business Schooleko Berrikuntza eta Teknologia programen Zuzendari Akademikoak, **Yolanda Lamillak**, Googleko Kontu Estrategikoen Komertzialak, **Beatriz Calzadak**, Performiscseko Social Ikuskatzaileak eta **Marisa Torok**, Burson Martellereko Managing Partnerak parte hartu dute, eta argi utzi dute eraldaketa digitalak enpresaren mundua aldatuko duela, antolaketatik hasi bezeroarekin erlazionatzeko era arte.

Hizlariak aro digitalak enpreseei ekarriko dizkien erronka berriak izan dituzte hizpide. **Silvia Lealek** erronka horiek aukera moduan aurkeztu nahi izan ditu, *"eraldaketa digitala erronka bat edo aukera bat izan daiteke, gakoa garai berrien aurrean dugun jarreran dago. Iraultza honetara gehitu gaitzke gure adina, lanbidea edo enpresa sektorea edozein izan da ere eta horretarako beharrezkoa da gertatzen ari dena ulertzea, nondik datorren guztia eta noruntz goazen. Honek guztiak pertsona bakoitzari lagunduko dio aldaketa posibleak antzeman eta gero bere enpresa proiektuan kokatu ahal izateko"*. **Yolanda Lamillak**, bestealde, lankidetzaren nabarmendu nahi izan du *"gaur egungo merkatu digitala oso komplexua da eta irtenbide egokiena negozio bakoitzarentzat lankidetzarekin zehazten da. Adimen-tadeen eta bezeroarekin zuzenean elkarri eraginean aritzen direnen ezagutza ezinbestekoak dira negozio modelu berrien definizioan"*.

Jardunaldia ideia argi batekin amaitu da: enpresak aurreratu eta berrasmatu egin beharko dira ingurune berri honetan bizirik iraun nahi badute, eta horretarako beharrezkoa izango da gako batzuk kontutan hartzea, hala nola, bezeroak hobeto ezagutzea, beraien beharrak modu arinean eta lehiakorrean nola asetu jakiteko, ingurune egonkor bat sortu langileen sormenerako, ingurune digital berri honetan negozio iraunkor eta lehiakor bat izateko zein antolaketa gaitasun berriak garatu behar ditugun definitu, negozio eta prozesu modeluen teknologia eta plataforma digital eta sozialen eragin erreala ikuskatu, eta azkenik, teknologia hauek ezartzeko eta bilakatzeko bidea nola egin ezagutu.

Gipuzkoa Teknologikoa

"Gipuzkoa Teknologikoa" programa 2003an sortu zen. Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera urtero bi jardunaldi antolatzen ditu. Jardunaldi hauetan informazioaren eta komunikabideen teknologien erabilpenarekin erlazioa duten gai ezberdinak jorratzen dira: interneten segurtasuna, tresna hauek negozio katea hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak, Gauzen Interneta, Big Data, 0.4 Industria...

Laguntzaileak



Antolatzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347